

ⓓ ELHEKETA; ASTE HUNTAKO SOLAS. GAIA

1. Oihanaldean mundek zuten agie?
2. Arnoa erosten zutena, stralde hartan?

Senpere Elizako Bestak - OIHAN ALDEKO BASKARIA

ⓓ

- 2 -

Kurutzearen seinalea orok eginik, ixil ixila, bezperan erre etxe-ogi mamitsua eskuan, ufaka jan zuten beraz salda gizona, bihotza atxeman baitzioten orori. Oihanaldeko arnotik gero, zorro¹⁷ handiko pitxer¹⁸-botoila beltz batzuetarik bethe ziren basoak. Hustu ere ziren hatik zalukara. Hazpandar batek, omen, baitzion egun batez, bere baso-barneko azken azken xorta hurrupatu arte ez zuela sumatzen lehen lehenbiziko xorta, hertzea¹⁹ luzexko hazpandarrek izanez, badut uste Oihanaldeko bazkaltiarrek hazpandarren ite²⁰

bazuten egun hartan. Ezen, basoak maiz aski hustuak ziren mahai-naren gainean. Bainan laster bethetzen ziren hala hala.

Oro betan mintzo ziren orai ezkaratzean, etxe-arno urhezkoak trenpuan goxoki berehala emanak.

Salda begidunaren ondotik, ethorri ziren oilo gizenak, axalera-ino gauza hoberenez orratuak, hari xuria zapartarazteko heinean hanpatuak. Tomate gorria bazen tira, nahi zuenarendako. Barnea kilikatu nahi zuela, agertu zen xaalki saltsa bat hauta, ogi-zerrak eta erhi-muthurrak oro bardin ontzen zituela, Napoleon Handiari lehen bezala.

Errakia²¹ gero: oilaxko pullit pullit batzu, zangoak goiti kurumilkatuak, untzi luxean; xikiro azpia ondarrean, Thomasek, kanit handi batekin, xerraka xerraka, ezpainak mehatuz pikatzen baitzuen, eta kanit muthurreekin emaiten ilhar zuri eder baten gainean.

UKAN. Conj. à dble cplt. IMPERATIF. C.D. Singulier

Ukan dezadan = que je l'aie	Neri = A moi	C.IND. — " —
Zuk ukan ezadazu	= ayez le moi	
Harek — " — bezat	= qu'il me l'ait	
Zuek — " — ezadazue	= ayez le moi	
Heiek — " — bezadate	= qu'ils me l'aient	
C.P. eman ezadazu	= donnez-le moi	

Zuri = A vous

Harek ukan bezazu	= qu'il vous l'ait
Heiek — " — bezazute	= qu'ils vous l'aient
C.P. erran bezazu	= qu'il vous le dise

Hari = A lui

Zuk ukan ezozu	= ayez le lui	: C.P. erran
Harek — " — bezoz	= qu'il le lui ait	: ezozu =
Zuek — " — ezozue	= ayez le lui	: = dites le lui
Heiek — " — bezozte	= qu'ils le lui aient	

ⓓ ADITZ IKASKUNTZA

31. Atxeman baitzioten 32. Omen baitzion
33. Ez nauzue entzuten 34. Ahanitzi zaitet
31-32. UKAN. Conjugaison à dble complément

Indicatif. Imparfait

C. Dir. Singulier C. Ind. Singulier

Nik nuen = je l'avais Neri = A moi

Zuk zinautan = vous me l'aviez

Harek zautan = il me l'avait

Zuek zinautaten = vous me l'aviez

Heiek zautaten = ils me l'avaient

C.P. Erraiten zinautan = nous me le disiez

Zuri = A vous

Nik nauzun = je vous l'avais

Harek zauzun = il vous l'avait

Zuek ginauzun = nous vous l'avions

Heiek gauzuten = ils vous l'avaient

C.P. Errepikatzen ginauzun = Nous vous le répétions

Hari = A lui

Nik nion = je le lui avais

Zuk zinion = vous le lui aviez

Harek zion = il le lui avait

Zuek zinion = nous le lui avions

Heiek zioten = ils le lui avaient

C.P. Emanu zioten = ils le lui avaient donné